Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 28a, asteartea — 99 — Martes, a 28 de mayo de 2019



## LEGAZPIKO UDALA

*Iragarkia*

Legazpiko Udaleko Gobernu Batzordeak 2019ko maiatzaren 20an eginiko ohizko bileran, ahobatez, akordio hau hartu zuela:

1. «Bidezkoa bada, 2019rako Gazteria zerbitzuaren diru-laguntzen deialdia onartzea».

2. Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Legazpi, 2019ko maiatzaren 20a.—Koldobike Olabide Huelga, alkatea. (3390)

GAZTERIA ZERBITZUA

*1. Grabazioak egiteko herriko musika taldeentzat diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarri-arau espezifikoak.*

*1. Xedea.*

Oinarri-arau hauetako xedea da herriko musika taldeen arte produkzioa sustatzeko diren laguntzak emateko deialdia erregulatzea; horrela, diruz lagundu nahi dira, 2019ko ekitaldian egindako grabatzearen edota edizioaren kostuen zati bat.

*2. Onuradunak.*

Laguntza hauek jasotzeko aukera izango dituzte Legazpiko udalerrian egoitza duten pertsonek osatutako herriko musika taldeek; baldintza horri dagokionez, Legazpikoak izan beharko dute musika taldeko kideen % 75 edo hortik gorakoek. Egoitzarako, biztanleen udal erroldan dauden datuak hartuko dira kontuan. Legazpiko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori, interesdunak, diru-laguntza eskaera aurkeztu duenez, datu hori egiaztatzeko baimena eman duela ulertuko baita.

*3. Eskabideak eta aurkezteko epea.*

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den hurrengo gunetik kontatzen hasita 2019ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

*4. Ekarri beharreko agiriak.*

Hauek dira eskatzaileak aurkeztu beharko dituen agiriak:

a) Diru-laguntzen eskaera-orria.

b) Taldeko kideen izenak eta horien nortasun agiri zenbakiak, jaioteguna eta helbidea zehaztuz.

c) Grabazioari edota edizioari dagokion/dagokien aurrekontua.

d) Abestien zerrenda eta letra edo letraren zirriborroa. Euskara edo erdara ez den beste hizkuntza batean badira, aipatutako bi hizkuntza horietara egindako itzulpena aurkeztu beharko da.

e) CDaren testua, Legazpiko Udalaren diru-laguntza jaso izanaren adierazpenarekin eta, anagrama sartuta.

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

*Anuncio*

Que la Junta de Gobierno local del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 20 de mayo de 2019 adoptó, por unanimidad, el siguiente acuerdo:

1. «Aprobación, si procede, de la convocatoria de subvenciones del servicio de Juventud para 2019».

2. Publicar dichas Bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Legazpi, a 20 de mayo de 2019.—La alcaldesa, Koldobike Olabide Huelga. (3390)

SERVICIO DE JUVENTUD

*1. Bases específicas reguladoras de la concesión de subvenciones destinadas a grupos musicales locales para la realización de grabaciones.*

*1. Objeto.*

El objeto de las presentes bases es regular la convocatoria para la concesión de ayudas destinadas a impulsar la producción artística de las formaciones musicales locales mediante la subvención parcial de los costes de grabación y/o edición producidos en el ejercicio 2019.

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas las formaciones musicales locales integradas por personas con residencia en el municipio de Legazpi, en un porcentaje igual o superior al 75 % respecto del total de componentes del grupo musical. A efectos de residencia se considerarán los datos obrantes en el Padrón Municipal de Habitantes. Se comprobará de oficio, considerándose que al presentar la solicitud de subvención, la persona interesada autoriza la comprobación del dato.

*3. Solicitudes y plazo de presentación.*

Las solicitudes podrán ser presentadas desde el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el día 31 de octubre de 2019.

*4. Documentación a aportar.*

Las personas solicitantes deberán presentar la siguiente documentación:

a) Solicitud de subvención.

b) Relación de las personas integrantes del grupo, señalando el número de DNI, fecha de nacimiento y dirección.

c) Presupuesto/s de grabación y/o edición.

d) Listado y letra o borrador de cada una de canciones. En el caso de que estén en otro idioma que no sea euskara o castellano, deberá presentarse la traducción a cualquiera de dichas lenguas.

e) Texto del CD, incluida la mención a la subvención que recibirá por parte del Ayuntamiento de Legazpi con la inclusión del anagrama.

EK\CV GAO-I-2019-03390

*5. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.*

Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

*6. Baloratzeko irizpideak. Bete beharreko baldintzak.*

Diru-laguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Abestiek giza-eskubideen aldarrikapen unibertsala errespetatuko dute.

b) Eskatzaileak Legazpin erroldatuta egongo dira, gutxienez urte beteko antzinatasunarekin, eta Udalarekin dituzten betebeharretan egunean egongo dira.

Diru-laguntzen ebazpena honako irizpideak kontuan hartuta eta lehentasun honen arabera egingo da:

— Lehen aldiz eskaera aurkeztea.

— Adinez, bataz beste, gazteenekin osatutako taldea izatea.

— Euskaraz sortua izatea.

*7. Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa grabazioaren edota edizioaren kostuaren erdia izango da, baina gehienez grabazioko 1.000,00 € izango da diru-laguntza.

Talde bakoitzak aukera du laguntza programa hau jasotzeko baina, gehienez ere, bi urtetik behin.

*8. Aurrekontua.*

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 2.000,00 €koa da, eta «1 0201 326 00 480 01 - Musika taldeetako laguntzak» kontu sailen kontura finantzatuko da.

*9. Ordaintzeko era eta epeak.*

Diru-laguntza ordainketa bakar batean emango da, gehienez ere hilabete bateko epean, hurrengo artikuluan aurreikusten den justifikaziorako eskatuko diren agiriak udaletxean aurkeztuko diren egunetik kontatzen hasita.

*10. Diru-laguntzak justifikatzea.*

Diru-laguntza emateko akordioa hartutakoan, diru-laguntza frogatu egin beharko da grabazioari edota edizioari dagokion faktura aurkeztuz, eta diruz lagundutako grabaketaren hiru kopia entregatuko zaizkio Udalari. Horretarako, gehienez ere, bi hilabeteko epea izango du musika-taldeak, diru-laguntza xede duen ekintza egiten denetik kontatzen hasita. Ondorio horietarako, eta beste dokumentazio baten faltan, ulertuko da grabazioa edo edizioa egin den eguna bat datorrela faktura egunarekin.

Edozelan ere, deialdi hau onartu aurretik egindako grabazioetarako, diru-laguntza eskabideak aurkeztu ahal izango dira hilabete bateko epean, beti ere deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den egunetik kontatzen hasita.

*11. Publizitatea eta hizkuntza irizpideak.*

Halaber, joan den 2010eko azaroaren 18an indarrean sartu zen Legazpiko udalerrian hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko Udal ordenantzaren 21. artikuluan xedatutakoa bete beharko du eskatzaileak.

Bestaldetik, grabaketan udalaren diru-laguntza jasotzen duela adieraziko du toki agerian; horretarako udalak eskainiko duen logotipoa erabiliko da.

*12. Ez betetzea.*

Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko erabakian zehaztutako obligazio guztiak betetzen ez badira, erabaki hori berrikusi egingo da eta, hala behar izanez gero, emandako zenbatekoa deuseztatu, murriztu edo itzuli egingo da.

*5. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.

*6. Criterios de valoración. Requisitos a cumplir.*

Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Las canciones deberán respetar la declaración universal de los derechos humanos.

b) Las personas solicitantes estarán empadronadas en Legazpi como mínimo con un año de antigüedad y estarán al día en las obligaciones para con el ayuntamiento.

La adjudicación de las ayudas se efectuará según los siguientes criterios y en este orden de prioridad:

— Solicitud de ayuda por primera vez.

— Grupo cuyos integrantes tengan la edad media más baja.

— Producción en euskara.

*7. Cuantía de la subvención.*

El importe de la subvención concedida será el equivalente a la mitad del coste de la grabación y/o edición, con un límite máximo de ayuda de 1.000,00 € por grabación.

Cada formación podrá tener acceso a este programa de ayudas una vez cada dos años como máximo.

*8. Presupuesto.*

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 2.000,00 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria «1 0201 326 00 480 01 - Ayudas a grupos musicales».

*9. Forma y plazos de pago.*

La subvención será abonada en un único pago, en el plazo máximo de un mes contado a partir de la presentación en el Ayuntamiento de la documentación requerida para la justificación prevista en el artículo siguiente.

*10. Justificación de las subvenciones.*

Una vez adoptado el acuerdo de concesión de subvención, ésta será justificada mediante la presentación de la factura correspondiente a la grabación y/o edición, junto con la entrega al Ayuntamiento de tres copias de la grabación subvencionada, en el plazo máximo de dos meses contados a partir de la realización de la acción objeto de subvención. A estos efectos, y a falta de otra documentación, se considerará que la fecha de realización coincide con la fecha de emisión de la factura.

En todo caso, para aquellas grabaciones realizadas con anterioridad a la aprobación de la presente convocatoria, se podrán presentar solicitudes de subvención en el plazo de un mes contado a partir de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*11. Publicidad y criterios lingüísticos.*

Asimismo, la entidad solicitante deberá cumplir lo recogido en el artículo 21 de la Ordenanza que regula la utilización de las lenguas oficiales en el Municipio de Legazpi que entró en vigor el 18 de noviembre de 2010.

Por otro lado, en la grabación se hará mención de la ayuda del ayuntamiento en un lugar adecuado y visible, conforme al logotipo proporcionado por éste.

*12. Incumplimiento.*

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la resolución de concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

EK\CV GAO-I-2019-03390

*1.2. Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa burutzeko herritarrei diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak.*

*1. Xedea.*

Deialdi honen xedea izango da herritik kanpo 2018-2019 ikasturtean Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa burutu duten herritarrentzako bekak emateko baldintzak arautzea.

Aipatutako ikastaroak Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan aitortutako haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko ikastetxeek eskainitakoak izango dira. Ikastetxe horiek eskaintzen dituzten prestakuntza-moduluak lanbide-ziurtagirien edukira egokituak izango dira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko urriaren 27ko Aginduan ezarritakoaren araberakoa.

*2. Onuradunak.*

Legazpiko udalerrian, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin erroldatuta dauden pertsona fisikoek eskatu ditzakete oinarri hauen bidez arautzen diren diru-laguntzak. Legazpiko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori, interesdunak, diru-laguntza eskaera aurkeztu duenez, datu hori egiaztatzeko baimena eman duela ulertuko baita.

*3. Eskabideak eta aurkezteko epea.*

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den hurrengo gunetik kontatzen hasita 2019ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

*4. Aurkeztu beharreko agiriak.*

Hauek dira eskatzaileak aurkeztu beharko dituen agiriak:

a) Diru-laguntzen eskaera-orria.

b) Matrikularen ordainagiria.

c) Ikastaroa ematen duen aisialdi eskolaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroaren atal teorikoa gainditu duela ziurtatuko duena.

Aisialdiko Begirale edo Zuzendari titulu ofiziala jaso eta gero, udaletxean aurkeztu beharko du horren kopia.

*5. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.*

Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

*6. Baloratzeko irizpideak. Bete beharreko baldintzak.*

Diru-laguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Legazpin erroldatuta egotea, gutxienez urte beteko antzinatasunarekin.

b) Ikastaroa gainditu izana eta Aisialdiko Begirale edo Zuzendari titulu ofiziala lortzeko betekizun guztiak betetzea.

c) Herritarrak Udalarekin dituen betebeharretan egunean egotea.

*7. Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Bekaren zenbatekoa matrikula prezioaren erdia izango da.

*8. Aurrekontua.*

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 800,00 € da, eta «1 0201 326 00 481 01 Irabazizko xederik gabeko erakundeei subentzioak» kontu sailen kontura finantzatuko da.

*9. Ordaintzeko era eta epeak.*

Diru-laguntza ordainketa bakar batean emango da, gehienez ere hilabete bateko epean, behin diru-laguntza ematea erabaki eta justifikatu eta gero.

*1.2. Bases específicas de concesión de subvenciones para la realización del curso de monitores/as y directores/as de Tiempo Libre.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de becas para las y los legazpiarras que hayan realizado fuera del municipio de Legazpi durante el curso 2018-2019 el curso de monitores/as o directores/as de Tiempo Libre.

Dichos cursos será impartidos por las escuelas de formación de personas educadoras en el tiempo libre infantil y juvenil reconocidas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que hayan adaptado sus módulos formativos al contenido de los certificados de profesionalidad, según lo dispuesto en la Orden de 27 de octubre de 2016, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura.

*2. Personas beneficiarias.*

Las subvenciones que se regulan a través de estas bases, podrán ser solicitadas por aquellas personas físicas que estén empadronadas en el municipio de Legazpi con un mínimo de un año de antigüedad. El ayuntamiento lo comprobará de oficio, considerando que al presentar la solicitud de subvención, la persona interesada autoriza la comprobación del dato.

*3. Solicitudes y plazo de presentación.*

Las solicitudes podrán ser presentadas desde el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el día 31 de octubre de 2019.

*4. Documentación a aportar.*

La persona solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

a) Solicitud de subvención.

b) Recibo de la matrícula.

c) Certificación de la Escuela de Tiempo Libre que imparte el curso, que acredite que la persona solicitante ha aprobado la parte teórica del curso.

Una vez obtenida la titulación oficial de Monitor/a o Director/a de Tiempo Libre deberá presentar una copia de la misma en el ayuntamiento.

*5. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.

*6. Criterios de Valoración. Requisitos a cumplir.*

Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar empadronada o empadronado en Legazpi como mínimo con un año de antigüedad.

b) Haber superado el curso y cumplir los requisitos necesarios para la obtención del título oficial.

c) Estar al día en las obligaciones para con el ayuntamiento.

*7. Cuantía de la subvención.*

El importe de la beca será la mitad del precio de matrícula.

*8. Presupuesto.*

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 800,00 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria «1 0201 326 00 481 01 - Subvenciones a instituciones sin fines de lucro».

*9. Forma y plazos de pago.*

La subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, a partir de la adopción del acuerdo de concesión, en el plazo de un mes contado a partir de la justificación requerida.

Titulu ofiziala lortuko ez balitz, interesdunak jasotako diru-laguntza itzuli beharko luke.

*10. Diru-laguntzak justifikatzea.*

Diru-laguntzak Aisialdiko eskolaren ziurtagiria aurkeztuz justifikatu beharko dira, bertan Aisialdiko Begirale edo Zuzendari titulu ofiziala lortzeko proposatuta dagoen ziurtatuko den.

*11. Ez betetzea.*

Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko erabakian zehaztutako obligazio guztiak betetzen ez badira, erabaki hori berrikusi egingo da eta, hala behar izanez gero, emandako zenbatekoa deuseztatu, murriztu edo itzuli egingo da.

Si no se obtuviera el título oficial, la persona interesada devolverá la ayuda recibida.

*10. Justificación de las subvenciones.*

Las subvenciones se justificarán mediante la presentación del certificado de la Escuela de Tiempo Libre que acredite que la persona solicitante está propuesta para la obtención del título oficial de Monitor/a o Director/a.

*11. Incumplimiento.*

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la resolución de concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

EK\CV GAO-I-2019-03390